

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agustin Agoues Sarasola

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1900-1993)*

Aurkibidea



Biografia



Austin Enea baserrian jaio zen Zarauzko San Pelaion. Ezkondutakoan, Ipar kaleko 3.ean bizi izan zen hiru urtean, eta gero Musika Plazan. Lanbidez ebanista zen, baina 1936an bere abizen bereko karrozeria ireki eta bertan lan egin zuen 1967 arte. Ageda Zubeldia Anzuolarekin ezkondu zen eta 14 seme-alaba izan zituzten elkarrekin. Arrantza zuen gustuko; maketazioan ere abila zen eta itsasontzi ederrak egiten zituen itsas mazkorrarekin. Kotxerik ez zuenez, bizikletan ibiltzen zen eta halaxe ibili zuen 83 urte zituen arte. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Zintak

ZAR-114

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai

Pasarteak

1. Gurasoen jatorria

- **Erref:** ZAR-114/003
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:03:16. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere aita frantsesa zen, baina Frantziako gerratik Espainiara egin zuen ihesi. San Pelaion gelditu zen, eta han ezagutu zuen bere emaztea izango zena.

Transkripzioa

Gure aita men zan frantsesa izatez, eta Frantziko gerra aurreneko

Republika Frantziyan izan zanian, ihesi iña Frantzitikan Espaiñira. Ta dijuala San Pelayon barrena, ordun esaten zayon pasatzen dianai “Camino de Bilbao”, ta hua’re. Ta gelditu zan San Pelayon. Eta San Pelayon gelditu, ta San Pelayon gelditu zanian, in zun andregaya gure ama no? Zauztik Zauzko guztiyak daki oaindikan zan Zarauzko plaza aurren-aurreneko etorri eta numero zuna, numero uno zun gure amak. “Era” Kristina Sarasola, [...] bezela, Agues y Sarasola: amana det Sarasola, ta Agues det aita frantsesana. [...]

2. Frantziatik kanporatutako erlijiosoak Zarautzen irakasle

- **Erref:** ZAR-114/005
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:08:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

San Pelaioiko eskolan ikasi zuen. Gero, Hermanotan ibili zen eskolan. 1902an Frantziatik erlijioso asko bidali zituzten, eta batzuk Zarautzen hasi ziren lanean hezkuntzan. Gero fraideetan ikasi zuen, eta han zer irakasle izan zituen aipatzen du.

Transkripzioa

Oain esango dizuet ofiziyoa hasi nintzana. Gu txikik giñan, eskolan hasi giñan San Pelayon Saustinenian, ni bizitako basarriya zan. Ta basarri batian geu, ta bestian zian orduan (nola zuen izena hayek? Eizagirre apeliyua baiña... Eizagirre apeliyua)... haien ama zan gure maistra. Guk aurreneko aitaguria han ikasi giñun han. Hamalau... Geo ibilli nintzan eskolan hermanotan, mil novecientas dosian Frantzitikan bialdu zituen relijioso guztiyak: apaizak, jesuitak, monjak... danak bialdu zituen Espaiñira. Hamen gelditu zian asko zien orduan, bai monjak, bai hermanuak ere. Hermanu hayek hasi zian orduan kolejiyua ematen. Gaur nola dabe “San José, Colegio San José”, hermanuana? Klase hayek zian orduan. Bueno, gaur ez [...], baiña orduan baberua ibiltzen zuen hemen, babero zuri bat. Hara eskola hasi nintzanian. Anaya, bi anaiyok, handikan hasi giñan, “el año” zenbagarrenian giñan? Antonianako, gaur Antoniana dakena Frailetan, Antoniana. Han dibujua jarri zuen, eta profesorez giñun bat Txapartegi (oain hor do etorrita Ameriketatik), Maurizio Txapartegi; ta bestia, berriz... Maurizio Txapartegi. Beno, han lagunak nizekun San Pelayotikan orduan bi anayak frailiak: Mitxelena, bat Juan Luis, ta bestia Santos. Santosek zun nere edadia; Juan Luis bi urte gazteo.

3. Tailerrean lanean

- **Erref:** ZAR-114/006
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:08:17. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

14 urterekin tailer batean hasi zen lanean, ofizioa ikasten zuen bitartean. Urtebetean ez zuen soldatarik jaso.

Transkripzioa

Hermanota [...] giñanian, hasi nintzan ofiziyua ikastea. Ofiziyo hori ikasten ai giñala, San Pleayon hamalau urtekin etorri nintzan “a donde” Tomas Murua Zarauzko tailler batea. Ta Zarauzko tailler hartan, gaur eiten ez dana: urtebetian aprendizajia debalde eon nintzan, soldatik gabe. Ta bigarren urtian eman zien, kintzenian, eman zien botoi hau bezelako moneda txiki bat, errial bi balio zun zillarra. Kinzenan hua zan ematen ziena Tomas Murua horrek. Hala hasi giñan.

4. Soldadutzara joan behar

- **Erref:** ZAR-114/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzara joateko garaia iritsi zitzaion. Zozketan 29tik 5. gelditu zen, eta hiruk bakarrik joan behar zuten. Baina bere aurreko bi libratu egin zirenez, joan egin behar izan zuen. 3 urte pasa zituen Hondarribian soldadutzan.</p>

Transkripzioa

Soldauzka etorri zaten, soldau jutia, soldau. Hogeita beetzi mutilletik atea nun “número sinco”, eta “número sinco” hayetatikan, hiruek bakarrik jun ber zuen soldau; hogeita betzitikan hiru mutillak jun ber zuen soldau, eta nik atea nun “sinco”, ta “sincotikan” hiruek jun ber zuen. Nik libre gelditu ber nun, baiña zein jun zian? Zumaiko bi mutillek inutillak zian: bat kojua, ta bestia begiyan eo faillo zuna. Ta bajatu nintzen de “sinco” hirura, bostetikan hirura, ta katiu atera nintzan. Libre izan ber nuna, atera nintzan katiu, eta eaman niñuen Ferrola. Marinan serbitu nun. Nik atzo Makazaga izan nun etxian, bueno, etxea etorri zaten, zea hori itea. Arrantzaki hori ingo nuke arrantzako hori. Ba, hortako preparatu in ber. Zergatik nik Marinatikan izugarrizko istoriya dakat nik Marinatikan. Hiru urte pasa nitun Hondarrubian, hiru urte.

5. Bizikleta eta lasterketak

- **Erref:** ZAR-114/008
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Soldadutzako soldatarekin, bizikleta bat erosi zuen 1923an. 6 bizikleta bakarrik zeuden orduan Zarautzen. Lasterketak jokatzeko hasi zen bizikletarekin. Lasterketa nondik nora izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

Ta handik etorri, ta Hondarrubiko barko hartako ematen zien soldatakin ahorratu nun bizikleta bat erosteko moua Frantziyan. Ta Frantziko bizikleta harrekin, hiru urte pasa ta geo, Zautza. Eta Zautzen [...] zan nik hartu nun hori, sei bizikleta bakarrik zauden Zautzen orduan. Ta esan nizkiyon orduan zein dian: Hendaya, Manuel Etxabe, Juan Gias, Gias, Juan Gias, neu. Zein da? Atzo esan nizkiyon, ba, atzo nik. Hoyek zian bizikleta hori, bizikleta ekarri nunian. Geo hasi nintzan, ba, sei bizikleta zian, ta geure burua haundik in nahian bizikletakin, kalea etorri, ta berri-berriya zan, ba! Berrogei duro pagatu bizikleta hua Parisen, ta hemendik hara, “eso fue el año veintitrés”, bizikleta ekarri nuna. Nik [...] beintitrestikan aurea, karrera jokatzeko hasi nintzan orduan, baiña holako oraingo bizikleta klasiakin ez e? Bizikleta korrientiakin. Segun gaurko piñoiak [...]... Seiko piñoya zun nere bizikletak. Ta karrera itten giñun Zarauzko zeatikan, kale barrenetikan Laurkaiña karrera izaten zan, baiña behiñ’e ez nun irabazi nik.

6. Txikitan beti euskaraz

- **Erref:** ZAR-114/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:13:16. **Bukatu:** 00:14:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Txikitan beti euskaraz hitz egiten zuten. Erdaraz Frantziatik bidalitako hermanoeak bakarrik hitz egiten zuten.

Transkripzioa

- Gazteak ziñetenean, nola hitz egiten zenuten?
- Euskeraz beti. Erderaz, erderaz hasi zian Hermanuak, Hermanuak hasi zian. Frantsesak zian Hermanuak e? Frantzitikan bialdu zituen, ba, gerrako zeak? Ta frantsesak zian Hermanuak danak, eta monjak’e bai, dana frantsesa zan. Herriko eskola bakarra zeon, han han ibilli zianak erderaz egiten zuten, zeatikan maixua bea erdalduna zan. Baiña frantsesak, erderaz hitz egiten zigun guri, baiña guk euskeraz. Herriko umiak nola giñan, euskeraz hitz egiten giñun guk beti, guk beti euskeraz [...].

7. Francoren garaian hotza

- **Erref:** ZAR-114/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Txikitan pilotan ibiltzen ziren. Francoren garaian hotza egiten zuen.</p>

Transkripzioa

- Zer egiten zenuten ondo pasatzeko?
- Pelotan.
- Pelotan jolastu?
- Pelotan, ta fuboleko ekipua eraiki nun nik, futboleko ekipua neu jarrita.
- Franco garaia nolako denborak izan ziren?
- Leno, oaingo aldian, hotz iten zun garai haietan e? Hotza, zeatikan neguan'e jelak eta zea... Ni Ferrolea soldau eaman ninduenian'e, zeatikan torpedero kuarentaiunon eon nintzan ni Ferrolen. Eta torpedero kuarentaiunon neola, han jela, jela ete zan orduan, [...] loriko jela iten zan orduan. Eskola etortzen giñanean'e harri koskor bana izaten giñun txoriyai botatzeko no? Ta ezin, soltatu ber izaten zan harri montoian, jelakin peatuta harriya no? Eta ezin libratu izaten zan harri koskor hua.

8. Aldaketak Zarautzen

- **Erref:** ZAR-114/012
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Zarautzera lehen aristokrazia etortzen zen udan, eta haien izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Leno Zarautz nolakoa zen?
- A, Zarautz, esango dizut: hor dakazu gaya, ba: Zarautzek zian, orduan etortzen zian honea zenbat, ba? Berrehun bat dukiak eta markesak; eta hayek hayek gobernatzen zuen Zarauzko herriya. Zauzko herria zan Mendilla Paerna, duke Aginaga (terreno haben jabia) ta "marqués de Cortina", Flores, kondesa Luis, Lesera, [...]. Hoyek zian, hoyek zian Madriko jende haundiyak zian, gobernadoriak zian, baiña [...] etortzen zian orduan, zea, beraneatzea Zauzko herrira etortzen zian.

9. Batzokiak eta dendak Zarautzen

- **Erref:** ZAR-114/013
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

1914rako bazeuden batzokiak Zarautzen. Zarauzko okindegi bati eta altzari-dendei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Euskerak zer aldaketa egin ditu Zarautzen?
- Euskerak, orduan'e, orduan'e baginun batzokiak e? Del año "mil novecientas... Ze, zenbat urte nitun, ba, nik orduan? Hamalau? Hamalau urtekin o holakon batekin in zan aurreneko batzokiya. Zeatikan batzokiya in zan, habek... panadei bat badago bat "veinte de septiembrian"? Panadei bat hor, "siglo veinte" zan hori, "siglo veinte" izena zun panadeyak. Eta panai harren itxalpan zeon ebanistei bat, Zauzkuak zian ebanistak; eta Gabilondo, muebles Gabilondo, hango langillia zan hau. Ni ez nitzan, nik ez nun ezautu hau, hau, Gabilondo, ba, hua zan aurren-aurrena Zautzen, mueblia hasi zana zan Mutiozabal "y" Gabilondo. Mutiozabal zan, Mutiozabal "era" Orio. Eta Zautzen estaziyoko aurrian, Pieloz gaur inprenta eo dago jarrita? Han jarri zun, zeak, Pielofek. Pielof Zautzen ekarri zun aiuntamentuak kondiziyo batekin: hoge langille sostenitzekotan; hoge langillei lana eman ber ziyon Pielofek. Eta hala konsegitu zun fabrika: hoge langillei lana eman nahiñian zea iteko Pielofek.

10. Nola aldatu den Zarautz

- **Erref:** ZAR-114/015
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:19:24. **Bukatu:** 00:20:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Zarautz asko aldatu da: lehen San Pelaion ehun lagun inguru bizi ziren, eta harako bidean zuhaitzek tunel itxura egiten zuten.

Transkripzioa

- Zarautzek zer aldakuntza egin ditu?
- Zarautzek zer alda...?
- Aldakuntza, zertan aldatu dan?
- Alkatia?
- Ez, Zarautz herriya zertan aldatu dan? Len nolakoa zen, eta orain nolakoa dan?
- Ba ordutikan, Jesus, orduan giñan, aber, eon, eon [...]: San Pelayon, San Pelayoaiño, San Pelayon eongo giñan gu ehun ehun lagun San Pelayon biziko giñan. Ta kaletikan, San Pelayotik kalea, San Pelayo kamiñoan, arbolakin tunela bezela zan: arbolak bi aldetatikan'e bat inda. Ta tunel bat bezela zan hua, San Pelayoa, [...] bidian. Hor etxeikan bat'e ez zan. Ez zian aleikan'e, kaletikan hasi ta San Pelayo bitartian.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com